

herrera-bidebieta

Datorren asteko San Luis jaiak

aurtengo jaiak gainean dauzkagu. Hori dela eta, Herrera Jai Batzordeak kaleratu ditu jadanik egitarauak. Liburuska hauen sarreran Jai Batzordeak hitz batzuk zuzendu dizkio auzoari. Alde bateatik, auzoak, Plan Orokorra dela eta, ondorengo urteetan jasango duen aldaketa nabarmena aipatzen du. Bestetik, plan honen inguruan sortu diren arazoak

alde batera utzi eta Herre-rako gazteen elkartasunak izan duen fruitua azpimarratzen dute.

Partaidetzari dagokionez, zera adierazten da: «*argi utzi nahi dugu batzordearen aldetik auzoko kolaborazioak ez direla oso zorionekoak izan (jende guztiak nahi ditu jaiak ekainean eta inor ez da bustitzen). Norbaiti ez bazaio aurtengo egitaraua*


atsegin, hurrengo urteetako bileretara etortzea eskatzen diogu, denon artean lana eginez jaiak hobetoagoak izango baitira.

Hala eta guztiz ere, beren arazoak beste batzuen aurrean txikiak direla onartzen dute eta «*gure artean ez dauden auzokideei eta gure auzoko intsumiso guztiei elkartasuna adieraziz Jai Batzordearen izenean agur bat bidali*

nahi diegu.

Hitz hauekin, eta oraindik ere festek eskatzen dituzten azken orduko hainbat zuzenketa egin behar izan arren, Herrera 1994. urteko San Luis Jaiak prestatzeko gai da eta hori horrela dela ziurtatzeko bertan dagoen giroa dastatzea besterik ez dugu.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnno.: 391267)



Panticosara irteera
Mendi-Zaleak elkarrekin asteburu honetarako irteera antolatu du Pirineotara. Ibilaldia larunbatean, ekainaren 11n irtengo da Herreratik goizeko 6.30etan eta 2.000 pezeta da prezioa.


Panticosa inguruetan bi mendi igoera egingo dira, bata Picos del Infierno-ra eta bestea Gamo Negro-ra. Ibil-tzea gustatzen ez zaion jendearentzat ibilaldi lasaiagoak prestatu dira.

Herri-Ametsa ikastolak ospatu du jadanik ikastolako aurtengo festa. Pasa den igandean, hilak 5, Herri Ametsak Mendiola mendiko inguruetan, ikasle, guraso, ikasle ohi eta ikastolarekin hurremana izan duten pertsona ugari bildu zituen.

Horretarako kirolak, euskal dantzak, bazkaria eta musika saioak izan ziren egun osoan zehar.

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa

fundación kutxa

intxaurrondo

Bernardino de Santos pilota entrenatzaileari omenaldia eskeinitako zaio ekainaren 12an. hamalau urte pasa ditu pilota munduan entrenatzaile gisa eta ezin du hain maitea duen kirola guztiz alboratu. Omenaldia goizeko 10.30etan hasiko da IPE elkarteko pilotarien partiduekin. Ondoren, beste partidu erakargarri bat ikusi ahal izango dugu, Carrete-De Santos eta Auzmendi-Apezetxea bikoteen artekoa. Bosko-Zaleak elkartean egingo den bazkarian, zenbait oroigarri emango zaizkio entrenatzaileari.


Miriam Muñoz xake jokalaria, Gironan egingo den Estatuko Xake Txapelketan parte hartuko du. IKE taldearekin jokatzen duen gazte honek, bosgarren aldiz Euskadiko Txapelketa irabazi berri du Eibarren.

Ekuatore-Gineatik urrun

gure herrialdean ez da ohizkoa atzerriko estatu bateko partaideak bildu eta elkarte bat sortzea. Hau izan da Guinea Etxearen kasua. Horregatik, auzoan halako elkarte bat egoteak harri-dura sortzen du.

Elkartea, duela bizpahiru urte sortu zen. Donostian dauden 12 gineatarrez gain, herri honi laguntza eman nahi zioten beste zenbait kide ere batu zitzaion proposamen honi. Iniziatiba gisa garrantzitsua da Euskal Herri osoan bakarra baita. Hasieratik, politika eta arrazakeria beren helburuetatik kanpo uztea erabaki zuten.

Donostiako gineatarrak duela urte asko etorritakoak dira. Francoren garaietan, heren herria utzi eta heziketa jasotzeko aukera eman zitzairen. Ondoren, euskaldunekin ezkontzera, familia bat sortu zuten eta momentu honetan beren



Xabier


Baiezkoa emana dute esaterako ekainak 11an belodromoan egingo den bizikleta festarako eta Intxaurrondoko jaietarako.

herrira bueltatzea ez zaie burutik pasatzen, bisita egitera ez bada, noski.

Elkarteko kideak harremanetan daude Ekuatore-Ginearekin. Bidaiak egiten dituzte eta botikak, liburuak, arropak, e.a. etengabe bidaltzen dituzte. Bestalde, pasa den astean beren herrira itzultitako haur talde bat ekarri zuten poliomielitisa sendatzeko.

Momentu honetan, gineatar gazte baten pinturak daude ikusgai, Gineako paraje zoragarriak erakutsiz. Ohiturak ez ahazteko, elkartean janari afrokaribearra ematen dute. Uda amaierarako talde batek Gineara abiatzeko asmoa dauka.

NAGORE IRASTORZA (Yfnoa. 28 57 49)



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**